


## Ia 475.000 pertsonak izan zuten osasun-aseguru pribatua Euskal AEn establezimenduak dituzten entitateetan 2019an

**Primen bolumena 344 milioikoa izan zen 2019an, 2017an baino % 4,7 handiagoa**


Eustatek landutako datuen arabera, 2019an Euskal AEn bizi ziren 474.462 pertsonak osasun-aseguru pribatu bat izan zuten Euskal AEn kokatutako entitateetan. Zifra horrek esan nahi du % 9ko igoera izan dela 2017ko ekitaldiarekin alderatuta.

Lurraldeen arabera, osasun-aseguru pribatua zuten pertsonen % 69,7 Bizkaian bizi ziren, % 18,9 Gipuzkoan eta % 11,4 Araban. Estaldura hori zeukan biztanleriaren sexuari dagokionez, emakumeak % 53,2ra iristen ziren, eta gizonak gainerako % 46,8ra. 45-64 eta 25-44 urte arteko adin-taldeetan biltzen ziren, hurrenez hurren, % 32,5 eta % 28, eta emakumeak ziren nagusi talde horietan, bai eta 65 urtetik gorakoetan ere.



Osasun-laguntza pribatuko zerbitzuak eskaintzen dituzten konpainiek 343,9 milioi euro bildu zituzten prima gisa, hau da, % 4,7ko igoera 2017arekin alderatuta, eta kopuru hori BPGren % 0,45 izan zen 2019an. Lurraldeka, primen ordainketaren % 71,8 Bizkaian kontzentratu zen, % 17,9 Gipuzkoan eta % 10,3 Araban.

Kontrataturako polizen modalitatea kontuan hartuta, primen % 50 aseguru kolektiboetakoak izan ziren, % 42,3 banakako edo familiako aseguruetakoak eta % 7,7 funtzionarioen mutualitate publikoetakoak. 2017. urtearekin alderatuta, aseguru kolektiboak hazi ziren gehien (% 8,4), ondoren funtzionarioen mutualitateak (% 1,8) eta, azkenik, banakako edo familiako polizak (% 1).

**Osasun-aseguru pribatua duten pertsonak eta prima-bolumena, lurralde historikoka. 2019**


Iturria: Eustat. Osasun arreata pribatuaren estatistika

2019an, Euskal AEn osasun-laguntza pribatuaren ezaugarria izan zen merkataritza-entitateen pisu handia, zeintzuek aseguratutako biztanleriaren % 99ri eman baitzioten estaldura.

**Osasun aseguramenduaren Euskal AEn magnitude nagusiak. 2019**

|                                 | 2019    | 2017    | 19/17 (Δ) |
|---------------------------------|---------|---------|-----------|
| <b>ASEGURUA DUTEN PERTSONAK</b> | 474.462 | 435.219 | 9,0       |
| Lurralde historikoa             |         |         |           |
| Araba/Álava                     | 54.255  | 49.474  | 9,7       |
| Bizkaia                         | 330.821 | 303.178 | 9,1       |
| Gipuzkoa                        | 89.386  | 82.567  | 8,3       |
| <b>PRIMAK (mila €)</b>          | 343.882 | 328.513 | 4,7       |
| Lurralde historikoa             |         |         |           |
| Araba/Álava                     | 35.338  | 31.701  | 11,5      |
| Bizkaia                         | 247.027 | 240.825 | 2,6       |
| Gipuzkoa                        | 61.517  | 55.987  | 9,9       |
| Modalitateak                    |         |         |           |
| Banako aseguruak                | 145.310 | 143.802 | 1,0       |
| Mutualitate publikoak           | 26.600  | 26.135  | 1,8       |
| Aseguru kolektiboak             | 171.973 | 158.577 | 8,4       |
| <b>BPGren aldeko pisua (%)</b>  | 0,43    | 0,45    |           |

Iturria: Eustat. Osasun arreata pribatuaren estatistika

**Ohar metodologikoa:** Estatistika honek Euskal AEn gutxienez establezimendu bat duten aseguru libreko entitateen informazioa biltzen du. Ez dira sartzen Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateak, ez baitute aseguru-izaerarik.

**Informazio gehiagorako:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística  
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz  
 Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62